



LORALDIA 2015

EUSKAL KULTURA GAUR GEROAN

ELSON FESTIBALA, APRILAREN 23, 24, 25 ETA 26AN.

05



Instagrameko
lehiaketa



LORALDIA2015 *Euskal Kultura Gaur Geroan* INSTAGRAMEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

XEDEA

Euskal Kultura Gaur Geroan lehiaketa Loraldia jaialdiarekin lotutako onlineko lehiaketa da; hain zuzen ere, Instagram sare sozialean bost astez burutuko dena.

Lehiaketa honetan astero Instagramen gauzatzeko erronka ezberdin bat proposatuko da eta epaimahaiak asteroko argazki irabazleak aukeratuko ditu.

Lehiaketaren parte hartze, komunikazio eta inguruko guztiak euskaraz bideratuko dira.

Lehiaketaren bukaeran, guztira 50 argazki izango dira irabazleak.

ANTOLATZAILEAK

Euskal Kultura Gaur Geroan lehiaketaren antolatzailea Azkue Fundazioa da eta Loraldia topaketaren egitasmoarekin lotutako ekintzetariko bat da.

Laguntzaile berezia izango dugu lehiaketan: Igerrak, Instagram erabiltzaile euskaldunon komunitatea, asteko erronkak eta parte hartzea sustatzeko eta epaimahaian kide izateko.

LEHIAKETAREN HELBURUAK

- Loraldiaren izena eta helburuak sarean zabaltzeko bidea eta tresna izatea.
- Euskara eta euskarazko edukiak sarean areagotzea eta sustatzea.
- Euskaldunon eta euskal kulturaren errealitatea internet bidez mundu osoari erakusteko baliabidea izatea.
- Euskal kulturaren diziplina, adierazpen mota eta arlo ezberdinek islatzeko aukera izatea.



- Euskaldunon sarea handitzea mundu digitalean eta elkar ezagutzeko bideak eskaintzea.
- Gure errealitatea baliabide eta formatu berritzaileetan erakustea.

LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

Euskal Kultura Gaur Geroan da gaia eta Instagramen burutuko da.

Hauk izango dira lehiaketaren ezaugarriak:

- *Euskal Kultura Gaur Geroan* lemarekin lotutako argazkiak Instagramen argitaratzea da lehiaketaren oinarria.
- Epea: martxoaren 26tik maiatzaren 8ra bitartean.
- Lehiaketaren dinamika:
 - Astero erronka bat proposatuko dugu Instagramen. Parte hartzaileek argazkiak argitaratuko dituzte astero, gai edo erronka horri erantzunez.
 - Astero jasotako guztien artean 10 argazkirik onenak aukeratuko ditugu.
 - Astero 10 argazki onenak zeintzuk izan diren iragarriko dugu, hurrengo asteko erronka proposatu baino lehen.
 - Bost astetan zehar erronka ezberdinak proposatuko ditugu, beti ere *Euskal Kultura Gaur Geroan* galdera horri erantzunez eta asteroko gaiarekin lotuz.

SARIAK

Euskal Kultura Gaur Geroan Instagrameko lehiaketak bi sari izango ditu:

- Bost astetan zehar aukeratutako 50 argazkiekin (aste bakoitzeko 10ekin) Euskararen Etxean ikusgai egongo den *Loraldia* erakusketa antolatuko da. Erakusketa hau ekainaren 8a eta irailaren erdialdera arte publiko guztiaren gozamenerako zabalik egongo da.

Gainera, argazki guzti hauek Euskararen Etxean gordailuan geratuko dira betiko eta dekorazio, apaingarri eta erakusteko erabili izango dira eraikinean.
- **Loraldia** jaialdiaren egunetan (apirilaren 23 eta 26a bitartean) hartu eta argitaratu eta egoki etiketatutako argazkien artean **bat aukeratuko da eta #HauDaLoraldia** aipamen berezia jasoko du.

Aipamen honi esker, hurrengo ediziotarako Loraldiaren adierazgarri eta lehenengo edizio honen sinboloa bilakatuko da.



* Oharra: argazki bakoitzaren egileekin materialak erabiltzeko eskubideen lagapena hitzarmenak lotuko dira.

EPEAK

Lehiaketa epea martxoaren 26tik apirilaren 29ra bitartean izango da.

Hauak dira epe honetan burutuko diren fase ezberdinak:

- **Asteroko erronkak:** gai bat proposatuko da astero, beti ostegunero. Martxoaren 26an argitaratuko da lehenengo asteko gaia. Azkeneko erronka apirilaren 23an proposatuko da.
- Asteko erronka eta aste bakoitzeko argazki onenen aukeraketari buruzko iragarpena egun hauetan argitaratuko dira:
 - Apirilaren 2an, bigarren erronkako proposamena eta lehenengokoari buruzko 10 argazki onenen aukeraketaren iragarpena.
 - Apirilaren 9an, hirugarren erronkako proposamena eta bigarrenari buruzko 10 argazki onenen aukeraketaren iragarpena.
 - Apirilaren 16an, laugarren erronkako proposamena eta hirugarrenari buruzko 10 argazki onenen aukeraketaren iragarpena.
 - Apirilaren 23an, bosgarren erronkako proposamena eta laugarrenari buruzko 10 argazki onenen aukeraketaren iragarpena.
 - Apirilaren 30ean, bosgarren erronkari buruzko 10 argazki onenen aukeraketaren iragarpena.
 - Maiatzaren 8an #HauDaLoraldia sari bereziaren argazki aukeratuaren iragarpena.
- Astero iragarriko da zein izango den epe horretarako proposatzen den erronkari buruzko gaia.
- Astez - aste aukeratutako 50 argazki horien egile-irabazleekin kontaktua eta lan orijinalen eskuratzeko epea maiatzaren 11an hasiko da.
- Argazki irabazle guztiekin Euskararen Etxean antolatuko den erakusketari hasiera emango zaio ekainaren 8an. Erakusketa honek uda osoan zehar, irailaren erdialdera arte iraungo du.



ERRONKAK ETA PARTE HARTZEKO MODUA

Esan bezala, lehiaketa honetako parte hartzea Instagram sare sozialean zuzenean gauzatuko da.

Mundu guztira zabalik dagoen lehiaketa da eta edozein erabiltzailek aukera izango du asteroko erronketan parte hartzeko.

Nora joan behar da lehiaketa honetan parte hartzeko?

Lehiaketa honi buruzko informazio guztia (deialdia, asteroko erronkak, asteroko erronketako irabazleak...) [Azkue Fundazioaren webgunean](#) agertuko da.

Baina lehiaketa Instagram bidez gauzatuko da eta sare horretara zuzenean igo beharko dira parte hartzeko lanak.

Zer egin behar da lehiaketan parte hartzeko?

- Instagram sare sozialean norberaren profilaren bidez parte hartu.
- [@Loraldia](#), [@AzkueFundazioa](#) eta [@Igerrak](#) erabiltzaileak jarraitu.
- Argazkiak argitaratu eta bakoitzeko eskatutako baldintza hauek bete:
 - Argazkiaren deskribapen bat idaztea, beti euskaraz.
 - Lehiaketak dirauen bitartean #Loraldia_[astekogaia] eta #Igerrak traolak erabiliko dira argazki guztietan. Beraz, adibidez, aste bateko erronkari erantzunez, erabili beharreko traolak izan daitezke: #Igerrak #Loraldia_Zinema, #Igerrak #Loraldia_Kirola eta abar. Hauetaz gain, erabiltzaile bakoitzak gehitu nahi izango dituenak.
 - Lehiaketa epea baino lehen hartutako argazkiekin parte hartzeko, argazki bakoitzean asteroko traola gehituko da iruzkin baten bidez.
 - Aste bakoitzeko erronkarekin lotutako argazkiak argitaratuko dira, eskatutako moduan etiketatuz.

Non iragarriko dira asteroko erronkak?

Baliabide hauek erabiliz zabalduko dituzte antolatzaile eta laguntzaileek astez-asteko erronka ezberdinak :

- Instagramen [@AzkueFundazioa](#) ren profilaren bidez. Ondoren, [@Loraldia](#), eta [@Igerrak](#) en profiletatik ere zabalduko dira.
- [Azkue Fundazioaren webgunean](#) ere informazioa zabalduko da.

Nola iragarriko da aste bakoitzeko argazki irabazleak zeintzuk diren?



Bide ezberdinak erabiliz iragarriko da:

- Instagramen [@AzkueFundazioa](#) ren profilaren bidez. Ondoren, [@Loraldia](#) eta [@Igerrak](#) en profiletatik ere zabalduko dira.
- [Azkue Fundazioaren webgunean](#) ere informazioa zabalduko da.
- @Loraldia, @Azkue Fundazioa eta @Igerraken sare sozialetako profila ezberdinen bidez.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Parte hartzea:

- Mundu osotik parte hartutako argazkiak onartuko dira. Nahiz eta lehiaketaren helburua euskal kultura eta izaera islatzea izan, hau edozein tokitan eman daiteke. Beraz, edozein tokitan ateratako eta argitaratutako argazkiak izan daitezke, azken asteko erronka salbu, #Loraldia_HauDaLoraldia traolari dagokiona, hain zuzen ere: azken aste honetako erronkan Loraldia jaialdiaren argazkiak izango dira bakarrik.
- Erabiltzaile bakoitzak erabakiko du noiz parte hartu eta aukera dago aste bateko erronkan parte hartzeko, behin baino gehiagotan, edo aste guztietan.
- Erabiltzaile bakoitzak nahi dituen beste argazki kopuruarekin parte har dezake. Ez dago mugarik.
- Edozein une eta garaian ateratako argazkiekin parte har daiteke. Hau da, ez dira zertan aste bakoitzean hartutako argazkiak izan behar.
- Aurretik Instagramen argitaratutako argazkiekin parte har daiteke lehiaketan. Honetarako, dagokion argazkian aste bakoitzean ezarritako traola iruzkin gisa sartuko da.

Lanen erabilpen eskubideak:

- Lehiaketa honetan parte hartzearekin erabiltzaile bakoitzak bermatzen du argazkiaren egilea dela. Antolatzaileek ez dute izango inolako erantzunkizunik argazkien egiletza dela eta suerta zitezkeen salaketa, erreklamazio, eskaera eta abarrengan.
- Lehiaketa honetan parte hartzea erabakitzen duten erabiltzaileek euren argazkien erabilpen eskubideen lagapena egiten dutela onartzen dute. Euren argazkiak aukeratuak izatekotan lagapen eskubidearen baldintzak jasoko dituen dokumentu bat sinatuko dute lehiaketaren antolatzaileekin.
- Egileren batek lagapen eskubide hauek jasoko dituen dokumentua sinatuko ez balu, bere argazkia ez litzateke Euskararen Etxean egongo den erakusketan agertuko, ezta irabazleen zerrendan ere ez. Antolatzaileek bere esku gordetzen dute lan hau ordezkatzeko beste bat aukeratzeko eskubidea eta ahalmena.



- Lehiaketa honetako 50 argazki irabazleen egileek lanen lagapen eskubidea sinatzean, beste eskaera, erreklamazio, ordainketa, opari eta abarrekorik ez dutela eskatuko ziurtatzen dute.

Arauk eta kontutan hartuko ez direnak:

- Ez dira kontutan hartuko lehiaketan parte hartu eta aukeratuak izateko ondorengoak:
 - Argazkiaren izenburu, iruzkin edo deskribapenean iraingarriak, errespetu faltak eta abar.
 - [@Loraldia](#), [@AzkueFundazioa](#) eta [@Igerrak](#) erabiltzaileen jarraitzaileak ez diren erabiltzaileen argazkirik.
 - Eskatutako traolak eza dauzkaten argazkirik: #Loraldia_[astekogaia] (asteroko erronkari lotutakoa) eta #Igerrak kasu guztietan.
 - Deskribapen edo testu minimo bat ez daukaten argazkirik, edo eta euskaraz idatzita ez daudenak.

EPAIMAHAIA ETA LANEN BALORAZIOA

Lehiaketa honetako epaimahaian arlo ezberdinetako profesionalak parte hartuko dute:

- Loraldiaren antolatzaileak.
- Azkue Fundazioa.
- Igerrak, Instagrameko erabiltzaile euskaldunen komunitateko arduradunek.
- Argazkilari profesionalak: Santi Yañiz eta Alberto Muro.

Talde honek astero erabakiko du zeintzuk diren argazki aukeratuak.

Zer baloratuko du epaimahaiak?

- Loraldiaren helburuekin bat egitea eta egitasmoa zer den erakustea.
- Euskal kulturaren gaurko eta geroko identitatea islatzea. Euskaltasunaren irudi modernoa, gaurkoa, geroari begira jartzen dena agertzea.
- Argazkiak eskaintzen duen mezua.
- Argazkiaren kalitatea.
- Irudi berritzaileak eta ausartak izatea.



- Erabiltzaile eta parte hartzaile aldetik, sailkatuen artean aniztasuna egotea saiatuko da: adin, jatorri ... aldetik.

AZKEN OHARRA

Lehiaketa honetan izena emateak esan nahi du erabat onartzen direla oinarri hauek.